

↓ **Soslaia**

«Beti at edo kontra»

Heriotzaren ideari ez zikion buelta asko ematen Txillardegik. «Fatalitate» handi bat zen beretzat. «Badakit egunen batean etorriko dela eta kito! Ez dut gauza horietan pentsatu. Beharbada arbuio modu bat izan daiteke, heriotza hor dagoela ahazteko modu bat, baina ez dut gauza horietan pentsatu». Honela zion Txillardegik Joxean Agirrek egindako *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean* elkarrizketa liburu luzean. Euskal Herrian kristautasuna gailen zen garaian agnostiko zen Txillardegi. Korrontearen kontra joateko joera izan zuen bere bizitzan. Edo beharra. «Ez da hala nahi izan dudalako izan. Ni ez naiz *snoob* bat eta ez zait gustatzen korrontearen kontra ibiltzea. Halaber, izan da. Bidea PNV zela onartua zenean, ETaren beharra sumatu nuen. Soluzioa Marxengan zegoela nagusi zenean, nik estalinismoaren goragalea sentitu nuen. Beti at edo kontra». Beti korrontearen alde izan zuena Jone Forcada emaztea

izan zen: «Arranke izugarrikoa da, ausardia handikoa eta beti aurrera jotzen duen horietakoa. Niri oso bizimodu gogorra tokatu zait. Jonak egin du posible, dudarik gabe, nik eraman dudana bizimodu zail eta esker-gabea», dio elkarrizketa liburuan. Neska kontuetan berantiarra izan zela — «25 urte nituenean hasi nintzen oilar-tzen» —, aspektu fisikoari dago-kionez ez dela izan oso nartzista — «ez zait gustatzen zeri bat bezala joatea, baina ez dut sekula horrekin problemarik egin», eta bertsolari zaharrak gazteak baino nahiago zituela aitortu zion Agirrerri: «Batzuetan programatutako bertsolariak iruditzen zaizkit. Aspaldiko-ek beste kutsu bat zuten».

Telebista ingelesez soilik ikusten zuten. «Euskal telebista amorratu arte ikusten dut, hau da, pare bat minutu». Kiroletan txirindularitza soilik zuen gustukoa, «oraindik ere alderdi eromantikoa baduelako», eta oso aldi behin pururen bat erretzen zuten. ■ **G. EROSTARBE**

lehen eleberria, 1956an. Urtebete geroago argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Ramon Saizarbitoria-*ren Egunero hasten delako* nobelarekin batera euskarazko eleberri gintza modernoaren abiapuntutzat hartzen da lan hori. Ondoren beste sei nobela eta hainbat saiakera liburu idatzi zituen Txillardegik.

1958tik 1960ra bitartean, Gipuzkoako Diputazioaren euskal literatura eskolak eman zituen.

Ildo politikoarekin desadostasunak zirela eta, 1967an ETA utzi zuen

1961ean erbesteko bidea hartu zuen. Frantzia, Suitza eta Belgikan bizi izan zen. Atzerrian izan arren, ETAn segitu zuen (zuzendaritza utzi zuen arren), eta kultur gintza murgildua, eta zeregin askoren artean, Baionan Euskal Idazkaritza sortu zuen beste euskaltzale batzuekin batera. Elkarlan horretatik, ortografian eta morfologian oinarritzeko arau batzuk adostu ziren euskara baturako, eta 1965ean agiri batean argitaratu. Lantalde horrek aurkeztutako proposamen gehienak geroago Euskaltzaindiak onartu zituen Arantzazuko Batzarraren ondoren, eta, hortaz,

Txillardegi aurrerabide haren eragile nagusietakoa izan zen.

Politikagintzan ia amaiera arte
Ildo politikoarekin desadostasunak zirela eta, 1967an ETA utzi zuen, V. Biltzarra egin eta gero. 1977an, behin Hego Euskal Herri-*ra* itzultuta, politikagintzan murgildu zen eta ESB (Euskal Sozialista Biltzarrea) alderdiaren sortzaileetako bat izan zen Iñaki Aldekoarekin batera. 1980an alderdi horretatik kanporatu zuten, euskarak alderdian izan behar zuen garrantziaren inguruko eztabaida baten ostean. Herri Batasunaren sorreran ere parte hartu zuen 1978an eta koalizioaren izenean senatari hautatu zuten. Bere bizitzako une gogorrenetakoa Madril-*en* senatari zela bizi izan zuen, armaturiko bi gizonak Josu Muguruza Herri Batasuneko diputatua (Espainiako Kongresuan) erail zutenean, 1989ko azaroaren 20an.

1976an unibertitatean hasi zen lanean, hizkuntzalaritzan espezialista gisa. Bordeleko Unibertsitatean, EUTGn eta Deustuko Unibertsitatean irakasle izan zen, 1967tik 1983ra arte. 1983-84ko ikasturteak aurrera, Zorroagako Fakultatean soziolinguistikako irakasle izan zen. 70 urte bete zituen, katedratiko emeritu izendatu zuen EHUK. Euskal Herrian Euskaraz taldearen sortzaileeta-



Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren hilotza, atzo arratsaldean, Errekaldeko bellatokia, Donostian. Txomin ETako buruzagi historikoa estali zuen oihal berberak estali du Txillardegiren gorpua ere. BERRIA

rikoa ere izan zen Txillardegi 1979an, baita Udako Euskal Unibertsitateko kide ere, hasieratik bertatik. Euskaltzaindian, hiru aldiz proposatu zuten euskaltzain oso izateko: 1980. urtean (Patxi Altuna aukeratu zuten); 1987. urtean (Juan Mari Lekuona); eta 1987. urtean (Ibon Sarasola). Euskaltzain urgazle zen 1957tik.

Bere bizitzaren azken urteetan ere ez zion utzi Txillardegik ekin bide politikari. ETaren bide armatua agortuta zegoela iritzita, Aralar alderdiarekin bat egin zuen, hura sortu eta hilabete batzuetara. 2007ko maiatzaren 25ean, ordea, alderdia uztea erabaki zuen, Aralarrek ETaren biktimen aldeko ekitaldi ofizial batean parte hartu eta urte hartako udal hauteskundeetara Ezker Batuarekin batera koalizioan joan zenean. 2008ko urtarrilean, EAE-ANV alderdiko kideekin batera agertu zen hedabideen aurrean, Espainiako hauteskundeetarako hautagai-zerrenda erregistroan aurkeztera joan zirenean.

@Txillardegiren heriotzaren albisteak BERRIA.INFOK eman zuten atzo eguerdian, eta lehen minututik oihartzun zabala izan zuen. Atzo ikusgai jarritako edukia ikusgai izango dira gaur ere egun osoan. Albiste bera eta erreakzioak jasotzeaz gain, Martxelo Otamendi Berriako zuzendariaren, eta Iñaki Petxarroman eta Juan Luis Zabala kazetariaren adierazpenak bideoan jasotzen BERRIA.INFOK atzo, hurrenez hurren, Txillardegik politikan, hizkuntzan eta literaturan izan zuen eragina jasoz.

Asko zor dizugu, Txillardegi

Martxelo Otamendi
BERRIA egunkariako zuzendaria

Euskaldunon *Egunkaria* jaio zen gaua, 1990eko abenduaren 5a, Lasarteko Industrialdearen erredakzioan. Berripaperaren lehen alea osatzen nahiko lan, eta ez zen astirik izan jaiotza merezi bezala ospatzeko. ETBko lankide pare bat agertu ginen jaiotzear zegoen egunkariaren langile sortzaileei zorionak ematera. Gure ustekaberako ez zen festa girorik, pizza batzuk apenas. Halako batean, Txillardegi agertu zen erredakzio-*ko* atetik xanpain botila batzuk eskuetan. Gaua animatu zien nekea eta urduritasuna aurrepegiatan marraztuta zuten moder-*nitate*.

Profil poliedrikoa dauka, gutxi bezala herri honetan, Txillardegik. Politika, hizkuntza, soziolinguistika eta literatura. Azken hamarkadetakoa erreferentzia nagusietakoa. Alor horietan guztietan lehen mailako eragilea izan zen, baina soziolinguistikarenean aitzindaria.

Euskara museoko hizkuntza izan beharrean hizkuntza moderno eta noranahikoa bihur zedin ahalegin nekaezina egin zuen, eta eskola sortu. Eskola eta pentsamendua, teorizazioa, praktika eta aldarrikapena. Eta Euskal Herrian Euskaraz erakundea. Erakutsi zigun euskarak balio zuela bizitzaren edozein alorretan jarduteko, balio zuela eta balio hori eman behar geniola. Komunikabideen alorrean, adibide bat besterik ez da, gogoangarria da euskarazko telebista lortzeko antolatutako «Gabonetarako telebista euskaraz» kanpaina, geroago jaio zen EITBri bidea erraztu ziona Eusko Jaurlaritzara sortu berrian.

Euskararen estatus modernoa asko zor dio Txillardegiri; gaur egun euskaraz egiten diren gauza asko ez ziren egingo Txillardegik pentsamendu eskola sortu ez balu.

Asko aurreratu du euskarak plano sozialean Txillardegik lehen lerroak idatzi zituenetik, baina asko falta da oraindik amestutako egoerara iristeko. Badago oraindik despistatu xamar dabilenik; esate baterako, atzo alderdi abertzale baten izenean Txillardegiren balorazioa gaztelara hutsez idatzita bidali zuena.

Asko zor dizugu, Txillardegi. Egin duzuna zor dizugu, eta egitek dagoena egitea zor dizugu.